



# **BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUA**

## **FROGA LIBREA**

## **GIZARTE ESPARRUA**

**2025eko AZAROA**

**ABIZENAK ETA IZENA:** \_\_\_\_\_

**SINADURA:**

**PUNTUAZIOA:**

**KALIFIKAZIOA:**


**Jarraibideak:**

- Ez ahaztu goian eskatzen diren datuak betetzeaz.
- 90 minutu dituzu proba egiteko.
- Itzali edo deskonektatu zure telefono mugikorra eta gorde.
- Boligrafo urdina edo beltza erabili.
- Aurkezpena, zuzentasun ortografikoa eta idazketaren kalitatea baloratuko dira; azalpenen argitasunari eta koherentziari, erabilitako kontzeptuen zehaztasunari eta, eskatzen denean, kokapen geografikoari garrantzia emango zaie.


## LEHENENGO ATALA: GEOGRAFIA ETA HISTORIA

4,5 puntu (0,25 puntu galdera bakoitza)

1. Interpretatu labur-labur beheko grafikoak eskaintzen dituen datuak: (0,25 puntu)



*Grafiko egokitua NASA GISS, NOAA eta Scripps CO<sub>2</sub> Observatory datuetan oinarrituta (1975–2024).*



2. Ordenatu kronologikoki beheko munduko gertaera historikoak, zutabe hutsean, 1etik 8ra bitarteko zenbakiak idatziz zaharrenetik -1-modernoenera -8-. (0,25 puntu)

|   | GETAERA HISTORIKOA                                  | ORDENA |
|---|-----------------------------------------------------|--------|
| A | Frantziako Iraultza                                 |        |
| B | Bigarren Mundu Gerra                                |        |
| C | Europar Batasunaren sorrera (Maastricht –eko ituna) |        |
| D | Ameriketako Estatu Batuen Independentzia            |        |
| E | Lehen Mundu Gerra                                   |        |
| F | Espainiako Gerra Zibila                             |        |
| G | Gerra Hotzaren hasiera                              |        |
| H | Errusiako Iraultza                                  |        |

3. Zer gertaera historiko erakusten digu beheko argazkiak? Azaldu ezazu labur-labur. 1. (0,25 puntu)



*U.S. Coast Guard Collection (lizentzia publikoa)*

4. Zein gertaera historikorekin dago erlazionatuta beheko irudi bakoitza? Gertaera historikoa zerrendatik aukeratu eta dagokion argazkiaren azpian idatzi. (0,25 puntu)

- Berlingo Harresiaren erorketa
- Kristobal Kolon Ameriketara iristen.
- Bigarren Mundu Gerra
- Frantziako Iraultza
- Gurutzadak



5. Idatzi beheko mendikateak zein kontinentetan kokatuta dauden: (0,25 puntu)

| Mendikatea              | Kontinentea |
|-------------------------|-------------|
| <i>Himalaya</i>         |             |
| <i>Andeak</i>           |             |
| <i>Atlas mendikatea</i> |             |
| <i>Alpeak</i>           |             |

6. Baso mota bakoitza dagokion ezaugarriarekin lotu: (0,25 puntu)

- |                |                                              |
|----------------|----------------------------------------------|
| • Baso boreala | * Temperatura eta hezetasun altua.           |
| • Oihana       | * Oso hotza eta poloetatik gertu.            |
| • Basamortua   | * Temperatura ertainak eta hosto erorkorrak. |
| • Baso epela   | * Temperatura gorabehera handiak ditu.       |

7. Kokatu ibaiak mapan: (0,25 puntu)

|                |            |          |          |           |
|----------------|------------|----------|----------|-----------|
| a. Mississippi | b. Jangtze | c. Volga | d. Niger | e. Ganges |
|----------------|------------|----------|----------|-----------|



8. **Idatzi** hurrengo esaldi hauek egia edo gezurra diren: (0,25 puntu)

- a. Nazio Batuen Erakundea Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren sortu zen bakea eta lankidetzaz sustatzeko\_\_\_\_\_
- b. NBERen egoitza nagusia Parisen dago\_\_\_\_\_
- c. NBERen helburu nagusietako bat da giza eskubideak babestea eta nazioarteko gatazkak saihestea\_\_\_\_\_
- d. NBEk ezin du estatu baten aurkako neurri militar edo ekonomikorik proposatu\_\_\_\_\_

9. Irudia **behatu** eta bere azpian dauden **galderak erantzun**. (0,25 puntu)



- a. Zer garai historikotan kokatzen da?

- b. Zein estilo artistikori dagokio?

c. Zer uste duzu irudikatzen duela?

10. Beheko irudia behatu eta bere azpian dauden galderak erantzun.  
(0,25 puntu)



a. Zer garai historikotan kokatuta dago?

b. Zein estilo artistikori dagokio?

c. Nor izan zen artelan honen egilea?

**11. Inguratu zirkulu batez erantzun zuzena. Zein da energia berriztagarriak erabiltzeko abantaila nagusienetariko bat? (0,25 puntu)**

- a) Agor daitezkeen baliabideak direla.
- b) Ingurumenaren kutsadura handitzen dutela.
- c) Iturri naturalak berriztagarriak eta jasangarriak direla.
- d) Energia gehiago kontsumitzen dutela sortu baino.

**12. Azaldu labur-labur zer alde dagoen garraio jasangarriaren eta ez-jasangarriaren artean. (0,25 puntu)**

**13. Europako Batasunaren historian garrantzitsuak izan diren 4 gertakari idatzi: (0,25 puntu)**



14. X bat jarri beheko esaldiak egia (E) edo gezurra (G) diren esateko. (0,25 puntu)

|                                                                     | E | G |
|---------------------------------------------------------------------|---|---|
| a) Europar Batasuneko herritar guztiek moneta bera erabiltzen dute. |   |   |
| b) Klima-aldaketak gizakien jardueraren ondorioz areagotu dira.     |   |   |
| c) Basamortuak soilik Afrikan daude.                                |   |   |
| d) Ekonomia zirkularrak baliabideak berrerabiltzea sustatzen du.    |   |   |
| e) Euri-eskasia Mediterraneoko klimen ezaugarria da.                |   |   |

15. Herrialde bakoitzari dagokion hiriburua idatzi: (0,25 puntu)

| Herrialdea | Hiriburua |
|------------|-----------|
| Frantzia   | Paris     |
| Alemania   | Berlin    |
| Italia     | Erroma    |
| Portugal   | Lisboa    |
| Grezia     | Atenas    |

16. Irudia aztertu eta beheko galderei erantzun: (0,25 puntu)



a. Zein garai historikoari dagokio?

b. Zein ezaugarri nagusi izan zituen garai honek?

**17. Erantzun zuzen bakarra X batez markatu:** zein da kapitalismoaren ezaugarri nagusia? (0,25 puntu)

|                                                                   |  |
|-------------------------------------------------------------------|--|
| Ekoizpenaren eta aberastasunaren kontrola Estatuaren esku egotea. |  |
| Merkatu librean oinarritzea eta irabaziak bilatzea.               |  |
| Enpresek irabaziak modu berdinean banatzea gizarte osoan.         |  |
| Lurraren eta baliabideen jabetza kolektiboa izatea.               |  |

**18. Labur-labur azaldu zergatik jotzen da klima-aldaketa arazo globaltzat?** (0,25 puntu)

## BIGARREN ATALA: TESTU BAT IRAKURRI ETA GALDERAK ERANTZUN

3 puntu

### 1. Irakurri arretaz beheko artikulua eta ondoren agertzen diren galderei erantzun

2023ko urriaren 7a baino lehen Gazan zegoen ia guztia desagertu da, Hamasek 1.200 pertsona hil eta 251 bahitu zituenetik. Orduan hasi zuen Israelek ofentsiba bat, eta horretan 67.000 palestinar baino gehiago hil dira, gehienak zibilak, nazioarteko zuzenbideko adituek eta NBEren batzorde batek genozidiotzat jo dutena. Bi urte geroago, hauek dira Gazaren aurkako ofentsibak nola astindu zuen lehenik eskualdea eta gero mundua azaltzen duten gako nagusiak.

#### ***Orduko haur bat baino gehiago erahiltzen dute***

Israeleko tropak Gazako lurraldearen %82 kontrolatzen dute. Israelek familia eta auzo osoak desegin ditu; Nazio Batuen Erakundearen arabera, etxebizitzak %92 kaltetu edo suntsitu egin da, eta 36 ospitaletatik 14 bakarrik funtzionatzen dute, gainera modu partzialean.

Gazako populazioaren %10 baino gehiago hil edo zauritu egin da, 168.000 zauritu eta 20.000 haur hil dira, horien artean mila baino gehiago ez ziren urtebetera iritsi, Gazako Osasun Ministerioaren arabera. Horrek esan nahi du ordu bakoitzeko haur bat baino gehiago hiltzen dela.

Bi milioi gazatarretatik, gehienak, pilatuta bizi dira, askotan behin eta berriro desplazatuak izan ondoren. Israelek sistematikoki jarraitzen du tresnak eta etxebizitzak suntsitzen, lehenik iparraldeko eremua erabat deuseztatu ondoren – gaur egun Yabalia, Beit Hanoun eta Beit Lahia hiri mamuak dira – eta gero hegoaldeko Rafah hiria, zeinaren inbasioa 2024ko maiatzean “lerro gorritzat” jo zuen Ameriketako Estatu Batuetako presidente ohia den Joe Bidenek.

#### ***20.000 haur erahil dituzte***

Israelek 2023ko urriaren 7an hasi zuen ofentsiban 67.000 palestinar baino gehiago hil dira. Gazako biztanleen %10 baino gehiago hil edo zauritu da, 168.000 zauritu eta 20.000 haur hil, horien artean mila baino gehiago ez ziren urtebete bete arte bizi izan, Gazako Osasun Ministerioaren arabera. Datu horiek ordu bakoitzeko haur bat baino gehiago hiltzen dela adierazten dute.

#### ***640.000 lagun “gosete katastrofikoan”***

Joan den abuztuaren 22an, NBEk baieztatu zuen Gaza probintzian gosete bat dagoela (hiriburua kokatzen den tokian), adituek ohartarazi ondoren 640.000 gazatarrek gosete “katastrofiko” pairatzen dutela. Martxotik aurrera, Israelek blokeatu egin du NBEren kamioiek laguntza humanitarioa masiboki sartzeara. Bi urte hauetan, elikagaiak, denda txabolak, sendagaiak eta gasolina tantaka iritsi dira.

2023ko urritik, eta bereziki uda honetan, 450 gazatar baino gehiago hil dira gosez eta desnutrizioz, horien artean 150 haur, Osasun Ministerioaren arabera.

## Kazetariak erahiltzea

Tropak 2023ko urriaren 27an sartu ziren Gazan, eta ordutik Israelek debekatu egin dio atzerriko prentsari bertara sartzea. Kazetariak soilik armadarekin batera egindako bidaia gidatuetan sartu dira, armadak aukeratutako eremuetan, tokiko biztanleekin harremanik izateko aukerarik gabe. Gainera, Israelek palestinar kazetariak sistematikoki erahil ditu: gutxienez 252.

## Genozidio-akusazioak

Azken urtean batez ere, Israelek isolamendu handiagoa pairatu du, protesta globalekin eta bere parte-hartzea ekitaldi kultural, kirol edo akademikoetatik kanporatua izateko protestak egin dira.

NBEko batzorde batek eta giza eskubideen erakundeek gertatutakoa genozidio gisa definitu dute, eta herrialde batzuek, Brasil kasu, Netanyahuri genozida deitu diote; horregatik, Lula da Silva presidenteak persona non grata izendapena jaso zuen. Beste herrialde batzuek, hala nola Kolonbiak, harreman diplomatikoak hautsi dituzte, eta Espainiak armamentu-salmenten eta material defentsiboaren embargua ezarri dio Israeli. Gainera, 20 herrialdek formalki Palestinako Estatua aitortu dute 2023ko urritik, horien artean Israelen aliatu historikoak diren Erresuma Batua eta Frantzia. Israelek, ordea, baieztatu du Palestina inoiz ez dela errealitate izango.

## La Haya: Israelen aurkako justizia-frontea

Orain dela bi urte Hamasek egindako erasoaren ondoren, La Haya bihurtu da justizia-eszenatoki nagusia, Nazioarteko Zigor Auzitegia (CPI) eta Nazioarteko Justizia Auzitegia (CIJ) izan baitira Israelen aurkako gerra-krimen, gizateriaren aurkako krimen eta genozidio-akusazioen erdigune.

Bigarren urteurren honetan, Gazako egoera humanitaria nazioarteko justiziaren etorkizunerako proba-kasua bihurtu da: mundu gero eta zatituago honetan, batzuek erantzukizun-mekanismoak indartu nahi dituzte, eta beste batzuek, aldiz, epaitegiak tresna politiko gisa ikusten dituzte.

**Noticias de Navarra** 2025-10-07 Nuria Garrido y Patricia Martínez [Jatorrizko artikulua](#)

**a. Berri honentzako izenburu bat idatzi. (0,5 puntu)**

b. Testuko hiru ideia nagusi aipatu. (1 puntu)

c. Azaldu labur-labur testuan termino hauek duten esanahia: (0.5 puntu)

- Genoziodioa:
- Blokeo humanitarioa:
- La Haya:

d. Azpimarratu erantzun zuzen bakarra (0,5 puntu)

***Zer erakusten du testuak?***

- a) Israelek gerra amaitu du eta bakea ezarri da.
- b) Gazan egoera humanitarioa oso larria da, milaka hildakorekin eta gosetearekin.
- c) Nazioarteko epaitegiek Israelen aurkako prozesua eten dute.
- d) Gaza berreraikitzen ari da nazioarteko laguntzarekin.

e. Eman iritzi personal eta argudiatu labur bat hurrengo esaldiaren inguruan: (0,5 puntu)

**“Ordu bakoitzeko haur bat baino gehiago hiltzen da Gazan.”**

## HIRUGARREN ATALA: LAN MUNDUA

2,5 puntu

1. **Azaldu labur-labur zer den lan-kontratua eta zeintzuk diren lan- kontratuak izan behar dituen elementu nagusiak.** (0,5 puntu)

2. **Azpimarratu erantzun zuzen bakarra: ¿Zer da lanbide-heziketa duala?** (0,5 puntu)

- a) Enpresak egiten duen barne-ikastaroa.
- b) Ikasleak ikastetxean ikasten duen hezkuntza orokorra.
- c) Ikastetxean eta enpresan aldi berean egiten den prestakuntza-sistema.
- d) Lan-esperientzia handiko pertsonentzako sistema berezi bat.

3. **Adierazi beheko esaldia egia edo gezurra den eta zure erantzuna arrazoitu.** (0,5 puntu)

“Langile batek aldi baterako kontratua badu, adostutako data betetzen denean amaituko da.”

4. **Definizio bakoitzaren aurrean dagokion kontzeptuaren zenbakia idatzi.** (0,5 puntu)

| ZBK° | Kontzeptua            | ZBK° | Definizioa                                                                                                           |
|------|-----------------------|------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1    | Gizarte Segurantzza   |      | Amaiera data zehaztua duen lan kontratua.                                                                            |
| 2    | Nomina                |      | Lana galdu duten pertsonen jasotzen duten diru laguntza.                                                             |
| 3    | Langabezia prestazioa |      | Herritarren babesa bermatzen duen Sistema publikoa, gaixotasun, istripu edo erretiro kasuetan laguntza ematen duena. |
| 4    | Kontratu mugatua      |      | Dokumentu bat da, non langile batek zenbat diru irabazten duen zehazten den.                                         |

**5. Sailaktu baieztapenak eskubide edo betebeharrak gisa, Langileen Estutuaren arabera. (0,5 puntu)**

- Opor ordainduak izatea.
- Lanpostuko segurtasun-neurriak betetzea.
- Soldata garaiz jasotzea.
- Enpresaren ondasunak behar bezala erabiltzea.

| Eskubideak | Betebeharrak |
|------------|--------------|
|            |              |